


KAIKO

URRETXUKO UDAL ALDIZKARIA




◀ **Xabi Ormazabal**
mendia zainetan

◀ *Nueva ordenanza
de ruidos*

◀ **Leire Santillán**
jostun eta diseinatzaile gaztea



90. ALEA
2006ko uztaila



Ale honetako laguntzaileak:
JESUS MARI ALBERDI
IRENE CALVILLO
MIREN CASTILLO
JON CASTRILLO
ESTITXU GOMEZ
PELLO GONZALEZ
ANA ISABEL ITURBE
IDOIA NARBAIZA
JABIER OTERMIN
GORKA QUEVEDO
MAITE QUEVEDO
KISKITZA UGARTEBURU
M^a CARMEN VIEDMA

Argazkilaria:
LUIS ANGEL TELLEZ

Azala:
"IZARREN HAUTSA" Liburua

Lege Gordailua:
55/678/93

Konposaketa:
ERROTAPRINT

Inprimaketa:
Iparagirre, S.A.

Kopurua:
3.500 Ale

KAIXOK ez du bere gain hartzen derrigorez aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

KAIXO no se identifica necesariamente con las opiniones de sus colaboradores, ni se hace responsable de las mismas

Ez bazara Urretxun bizi eta **KAIXO aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu**, eman zure helbidea
943 03 80 88 telefonoan edota kultura.ur@urretxu.net helbide elektronikoa.

Si no vives en Urretxu y **quieres recibir la revista KAIXO en tu buzón**, déjanos tu dirección en el teléfono 943 03 80 88 o bien en kultura.ur@urretxu.net

aURKIBIDEA KAIXO 90. alea - 2006ko Uztaila

3 ALKATETZA



4 KULTUR ETXE SOLAR

6 EUSKARAREN KALE ERABILERA

NUEVA ORDENANZA DE RUIDOS 8



10 ATZERA BEGIRA: ALTXOR BILA

13 KALEKO IRITZIAK

XABIER ORMAZABAL



17 EUSKERA

18 LEIRE SANTILLAN



UROLA GARBIA



24 LABURRAK

FM 94.5, MIKEL SANZ



KAIXO GAZTETXO! UDA KIROLA 28



30 GOLDEN APPLE QUARTET: MANU ROMANO

GORKA ZUFIAURRE



33 UDAL ZERBITZUAK: UDALTZAINGOA

34 TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIAK

PISCINAS MUNICIPALES



La instalación de las piscinas municipales cumple en esta edición su catorce cumpleaños. En este periodo se ha descubierto que el uso y la aceptación que tiene nos obliga a mejorar cada año aspectos que permiten darle mayor esplendor si cabe a las mismas. Este año por ejemplo hemos modificado el cierre de las piscinas con un vallado de madera que cumple su función separadora de las playas y además le da un resalte estético de primer orden, junto a ello se ha mejorado el césped y se han plantado setos y arbustos que le den una mayor intimidad a los usuarios. Es intención del Ayuntamiento que año a año vayamos mejorando este servicio con nuevas inversiones paulatinas, como alumbrado exterior, agua caliente en las duchas, instalaciones de depuración, cambio del calendario, etc. Buscando el prestar el mejor de los servicios a una población que los demanda en más dimensión cada día, sobre todo entre la población más joven.

Sin embargo existen entre nosotros jóvenes que al parecer les molesta que la gente acuda en masa y disfrute de sus instalaciones y no se les ocurre otra cosa que destruir por destruir lo que tanto ha costado conseguir. Y me explico, es habitual que los fines de semana, normalmente asociado a fiestas locales tengamos que asistir a la entrada en el recinto de jóvenes de entre 14 a 16 años, que supongo se divierten rompiendo cuanto encuentran a su paso, tirando papeleras, arbustos, mesas y demás a la piscina, derribando las vallas del recinto, ...etc. El último fin de semana coincidiendo con las fiestas de las estaciones, además de los comentados no se les ocurrió otra cosa que incendiar a las cuatro de la madrugada, las sombrillas de las mesas exteriores y del quiosco de los helados, y de no ser por la pronta intervención de los bomberos el edificio de los vestuarios podría haber sufrido más daños de los que tuvo. ¿Para qué? ¿Por qué? ¿Qué molesta? ¿Alguien puede darnos una explicación de estas hazañas juveniles? ¿Quién es responsable de todo esto?

Sin duda muchas preguntas que nos debemos contestar cada uno de nosotros. De momento las investigaciones siguen su curso y es posible que se identifique a los culpables de este hecho. Pero con esta pregunta termino ¿debemos considerar como normal por frecuente que todos los lunes nos encontremos en general con mobiliario urbano roto, árboles arrancados o partidos, botellas rotas por doquier, orines y demás espectáculos callejeros? Cualquiera que sea la respuesta, da pie a pensar que algo no estamos haciendo bien.

NUEVOS PROYECTOS PARA URRETXU

Desde el pasado mes de junio, se encuentra para disfrute de todos, finalizada la obra de las antepuertas del frontón Ederrena. La misma contempla otorgar la accesibilidad debida a la entrada principal del frontón con un rampa creada al efecto más la definición en prioridad del bidegorri que transcurre a lo largo de su frontal. El remate final queda configurado con la jardinería exterior, riego automático e iluminación dotándole al espacio de un muy agradable aspecto exterior. La idea sería seguir rematando la zona con la reparación y recomposición de todo el espacio que contempla la plaza conjunta Areizaga-Kalebarren, que se encuentra a la espera de la decisión del Ayuntamiento de Zumarraga. Asimismo tenemos que comunicar que en breve estará a disposición de todos los vecinos el espacio denominado Kale Txiki. Una obra ya acabada cuyo apartado de iluminación nocturna esperamos sorprenda a más de uno y consiga ser un rincón visitable dentro de nuestro precioso casco histórico.

Otro proyecto que pronto saldrá a licitación será el que contempla la zona del aparcamiento de Kalerrota escaleras de acceso a Labeaga y zona de antepuertas del denominado rascacielos. Una obra de gran necesidad para comunicar ambos espacios reordenarlos y dotar de una mejor entrada a los edificios allí situados, por donde diariamente transcurren cantidad de vecinos que verán sin duda mejorado y ordenado su entorno.

Por último y para después del verano queremos dejar definidos dos nuevos proyectos que atenderán por un lado, la zona de la cuesta y el acceso a Barrenkale y por otro, el espacio libre destinado a aparcamiento de la zona de Altamira, con un proyecto que pudiera contemplar la posibilidad de garajes en su interior tanto en concesión administrativa, como de rotación. Son propuestas que nos ilusionan, de los que informaremos puntualmente y que quieren continuar en la línea de hacer, el Urretxu mejor que pretendemos.



DISKO BERRIA

Kultur ekimen berri bat ari da lantzen gure herrian, laster argitaratu emango den ekimena. Disko berri baten argitalpenari natarzue, eduki urretxuarra izango duena, herriko musika taldeek egina eta kantatua. Musika arloan, Urretxuk historian zehar egin duen eta egiten duen lan handiari esker ona eskaintzea da Udalaren asmoa. Hori horrela, dagoeneko lanean ari da batzorde bat, partiturak bilatzen, Urretxuko egileen edo Urretxurekin lotura duten musika lanak hain zuzen ere, horiek guztiak bildu, aukeratu eta ordenatu ondoren, herriko taldeen edo bakarlariekin esku utzi eta behar bezala landu ondoren, diskoaren grabazioa egin ahal izateko. Lerro hauen bitartez nire eskerrik beroena batzordeari eta etengabe lanean ari diren talde nahiz bakarlariei; seguru nago lortzen diren emaitzak gogoangarri izango direla Urretxuren historia musikalean. Laster ikusiko dugu eta txalotu ere bat, zalantzarik gabe.



KULTUR ETXE “SOLAR”

En un numero anterior de KAIXO publicábamos la noticia de la firma del convenio entre el Ayuntamiento de Urretxu y el Ente Vasco de la Energía (EVE), en el que se preveía la colocación de placas solares en distintos edificios municipales.

Durante el pasado mes de mayo la empresa Acciona Solar S.A. procedió a la colocación de los paneles solares en Gainzuri y en la Casa de Cultura. Con el fin de conocer mejor el funcionamiento de esta instalación, nos hemos puesto en contacto con **Raúl García Carballo**, director de la delegación del País Vasco de la mencionada empresa.

¿Raúl, nos podrías explicar brevemente como funciona una placa solar?

[Raúl García Carballo] Estas instalaciones se denominan instalaciones solares fotovoltaicas de conexión a red. Y se dividen en tres partes principales, sistema generador (el que genera la corriente eléctrica), sistema convertidor (el que transforma la

corriente continua producida en corriente alterna necesaria para verterla a la red eléctrica) y los contadores (cuentan la energía que se vierte a la red). Antes de nada, aclarar, que una placa solar comúnmente se le suele llamar al conjunto de módulos solares fotovoltaicos que puede ser de mayor o menor número de módulos dependiendo del tamaño de instalación que se pretenda hacer. Un módulo fotovoltaico está compuesto por células de silicio, normalmente cristalino que en contacto con la luz reaccionan creando una corriente eléctrica. Esta "electricidad" es generada en corriente continua y transformada por el sistema convertidor para que tenga las condiciones adecuadas para poder verterlo a la red de distribución de la electricidad.

¿Por qué se han colocado las placas solares en estos dos edificios? ¿Se van a colocar en más sitios?



R.G.C.: Por lo general el interés de este tipo de instalaciones es colaborar con el desarrollo sostenible, tienen un aspecto medioambiental (evita emisiones de CO2 a la atmósfera...), aporta una imagen al edificio donde se encuentra ubicada (de nuevas tecnologías...un plus que le distingue) y genera una conciencia medioambiental en la sociedad que le rodea, ya que como es lógico una instalación de este tipo no sólo tiene beneficios directos a favor del medioambiente, sino que además hay otros beneficios indirectos ya que toda persona que conoce la existencia de una instalación de este tipo por lo general aumenta su conciencia medioambiental y hace de recordatorio, por ejemplo para un uso más responsable del consumo energético, siempre todo esto de una forma rentable también económicamente.

R.G.C.: En cuanto a si se van a colocar en más sitios, es sí. Hay bastantes instalaciones previstas tanto en edificios relacionados con la educación, como edificios municipales, sector industrial y de servicios, viviendas particulares, explotaciones agrarias, etc...

¿Cuántas placas y de qué características se han colocado en cada edificio?

R.G.C.: Son instalaciones de 5KW de potencia nominal de unos 5400 Wp de módulos solares fotovoltaicos, es decir unos 30 módulos de 180Wp cada uno.

La energía que se produce, ¿en qué se utiliza?

R.G.C.: La energía producida se vierte a la red de distribución donde hay un mix de distintos orígenes de energía eléctrica, normalmente en un punto muy cercano a la instalación, por lo que esa electricidad se consume en cualquier demanda eléctrica de los puntos de consumo más cercanos a la instalación solar.

¿Podemos saber la energía que se está produciendo en cada edificio?

R.G.C.: Por supuesto, de hecho la mayoría de estas instalaciones en edificios públicos llevan además un panel sinóptico que informa de varios parámetros de la instalación, monitorizando a tiempo real por ejemplo los datos de energía generada por la instalación hasta el momento. Además en muchas instalaciones incluso se trasladan esos datos a una página web donde se pueden consultar.

¿Cualquier propietario, o comunidad de propietarios podría poner placas solares en su tejado?


R.G.C.: Por supuesto, siempre y cuando disponga de las condiciones técnicas adecuadas, que generalmente suelen ser, una superficie mínima de 55m2 con orientación sur y cierta inclinación y libre de sombras. Puede ser un tejado, una cubierta plana, terreno, fachada...Además de poder ponerlo actualmente se considera una inversión realmente atractiva ya que existen varias medidas que fomentan la inversión en este tipo de instalaciones por su carácter medioambiental positivo, como son las primas en el precio de venta del kWh, subvenciones a fondo perdido, desgravaciones fiscales, financiaciones...>

M.ª Carmen Viedma



“Joan zen maiatzean eguzki-plakak jarri zituzten Gainzuri ikastetxean eta kultur etxean, horien bitartez argindarra sortu ahal izateko. Eguzki-plaka horiek garapen iraunkorrean laguntzen dute eta gizartearengan inguruarekiko kontzientzia pizten dute”


Urretxu eta Zumarragako Euskararen Kale Erabileraren Neurketa



Bildutako datuen arabera, euskararen erabilera %22,7koa da Urretxun eta Zumarragan, orain dela lau urte bezalaxe. Ikus daitekeenez, oraindik ere alde handia dago erabileraren eta ezagutzaren artean, 2001eko datuen arabera bi herriotako biztanleen ezagutza maila %49,7koa baitzen.

Erabilera orokorraren bilakaera

Bestalde, azken bi neurketetako datuei erreparatzen badiegu, 2001ean eta 2005ean diseinu bera errepikatu zenez, Urretxu-Zumarragan neurtutako lau ibilbideak kontuan hartuta, emaitzen bilakaera zein izan den ikus dezakegu. Beraz, bi herriotan oro har 2001etik gaur arteko bilakaera zein izan den azaltzen digu ondorengo diagramak:



Por encargo de los dos ayuntamientos, el pasado mes de noviembre se realizó la medición del uso del euskera en Urretxu y Zumarraga, cuyos resultados fueron presentados el pasado día 15 de mayo. Según los mismos, el uso del euskera en la calle se ha mantenido estable (22,7%) desde la última medición realizada en el año 2001, frente a un nivel de conocimiento (año 2001) del 49,7%. Por grupos de edad, se ha constatado un aumento del uso del euskera entre los adultos (25-64 años), mientras que ha descendido entre los niños/as, jóvenes y mayores (más de 65 años).




Ikusten dugun moduan, **2001eko neurketatik 2005ekora erabilera egonkor mantendu da %22,7an.** Neurketa honek zonalde edo gunekako datuak ere ematen ditu; bi herriotako guneei erreparatuta ikusten da erdigunean zertxobait gehiago erabiltzen dela euskara. Erabilera mailarik altuena Euskadi eta Gernikako Arbola plazetan eman da neurketa honen arabera, hain zuzen ere %29,2koa.

Adinari dagokionez, 2 - 14 urte bitarteko **haurren artean** erabilera %35,8koa da; 15 urtetik 24 urtera bitarteko **gazteen artean**, %25,5koa; **helduen artean** (25 - 64 urte bitarteko adin taldean) %20koa; eta azkenik, 65 urtetik gorakoaren artean %11,5koa.

Azterlan honetan jasotakoaren arabera, bada itxaropentsu izateko arrazoirik, herriko adin talderik gazteenak baitira kalean euskaraz gehien egiten dutenak, eta gazteen erabilera herriko batz bestekoaren gainetik dago.

Urretxu-Zumarragako ezagutzia eta erabilera



Hala ere, azken lau urteotan, haurren, gazteen eta adinekoen artean erabilera jaitsi egin da, eta helduen taldean bakarrik egin du gora.

Bukatzeko, aipatu, haurren presentziak ere eragin nabarmena duela. Haurrik tartean ez denean erabilera %13,2koa da, eta haurrak daudenean, berriz, ia %36koa.

Bi herriotako euskararen kale neurketaren inguruan azaldu dizueguna laburpen bat besterik ez da, eta esan beharrik ez dago datu zehatzagoak nahi izanez gero, edozein herritaren jo dezakeela Udaleko euskara zerbitzura, hortxe bertan baitago Soziolinguistika Klusterrak prestatutako txosten osoa.>

Jesus Mari Alberdi

para que el ruido no llegue a

En el último pleno celebrado el pasado mes de junio, el Ayuntamiento de Urretxu aprobó por unanimidad la Ordenanza que regula la protección de las personas frente a las molestias producidas por la emisión de ruidos al medio.

El ámbito regulador de la Ordenanza incluye todas las instalaciones, actividades, actos y comportamientos que generen ruidos susceptibles de producir molestias a las personas.

Ninguna fuente sonora podrá emitir niveles de ruido que generen en un emplazamiento diferente al de la emisión, niveles de recepción superiores a los señalados en el Decreto 171/1985, de 11 de junio, por el que se aprueban las normas técnicas de carácter general de aplicación a las actividades molestas, insalubres, nocivas y peligrosas a establecerse en suelo urbano residencial. Se exceptúan de esta prohibición los ruidos procedentes del tráfico rodado, de la construcción, trabajos y actividades en la

vía pública, así como de festejos y actos con especial proyección oficial, cultural o recreativa.

Actividades en la vía pública

a) Los trabajos temporales y excepcionales como las obras de construcción públicas o privadas no podrán realizarse durante los días festivos, ni entre las 21,00 y las 8,00 horas los días laborables.

b) Las actividades de carga y descarga de mercancías en la vía pública se prohíben entre las 22,00 y las 8.00 horas

c) Con carácter general se prohíbe en la vía pública accionar aparatos de radio y televisión, tocadiscos, instrumentos musicales, emitir mensajes publicitarios o cualquier otra actividad que genere ruidos.

Prohibiciones

1. Se prohíbe la circulación de vehículos a motor y ciclomotores con el llamado escape libre, sin el preceptivo dispositivo silenciador de las explosiones, o con silenciadores incompletos, inadecuados o deteriorados.

2. Se prohíbe forzar las marchas de los vehículos produciendo ruidos molestos debidos a aceleraciones innecesarias.

3. Se prohíbe el empleo de bocinas o cualquier otra señal acústica en la totalidad del casco urbano, salvo en caso de inminente peligro de atropello o colisión, o que se trate de vehículos prioritarios públicos o privados que circulen en servicio de urgencia.

Control de vehículos

Todas las personas conductoras de vehículos quedan obligadas a someterse a las pruebas que para controlar el nivel de ruido emitido por los mismos pueda efectuar el personal de la Guardia Municipal, pudiéndose realizar, a este efecto, controles preventivos de carácter general, de acuerdo con los programas que establezca este Ayuntamiento.

Si el nivel de ruido, una vez efectuado el ensayo correspondiente, resultase hasta en 6 dB (A) superior al que corresponde al vehículo en cuestión, se impondrá denuncia condicionada a la reparación de la anomalía detectada.

En este caso, la persona titular del vehículo dispondrá de 15 días hábiles para subsanar las deficiencias observadas en cualquier taller de reparación autorizado.

Ruido de vehículos

Todo vehículo de motor deberá estar en buenas condiciones de funcionamiento con el fin de que el nivel de ruido emitido tanto en circulación como en régimen de parada no exceda de los límites establecidos por la normativa vigente aplicable o modificaciones posteriores.

ZARATARIK GABE

Udalbatzak egindako azken bilkuran, ingurugiroan ateratako zaratak sortarazten dituen arazoen aurka jendea babesteko ordenantza adostu zuen aho batez.

Jendeari arazoak sor diezazkioketen instalazio, jardue-
ra, ekintza eta bestelako jokabideek ateratzen dituzten zaratak sartzen dira ordenantzak arautzen duen eremuan.

Ondorioz, kaleko jarduerak (eraikintza-lan, zamalanak, musika tresnak, publizitate-mezuak) eta ibilgailuen zarata (motoredun ibilgailu guztiak egon behar dute funtzionamendu egoera onean) arautzen dira. Horrela, debekaturik dago ibilgailu motoredunak eta ziklomotoreak ihes-tutu librearekin ibiltzea, beharrezko ez diren azelerazioen ondorioz zarata gogaikarria sortuz eta bozina edo beste ezein seinale akustiko erabiltzea hiri barnean.

mol est ar



Condiciones para el ejercicio de la actividad

Los titulares de actividades así como los responsables de los actos o comportamientos susceptibles de producir molestias por ruidos, están obligados a adoptar las medidas de insonorización de sus fuentes sonoras y de aislamiento acústico de los locales e instalaciones para cumplir en cada caso las prescripciones establecidas.

Los titulares de actividades comprendidas en la Sección 1ª del Decreto 171/1985, de 11 de junio, si disponen de equipos de música, deberán instalar un limitador del nivel sonoro generado en la actividad que garantizará el cumplimiento de los niveles máximos establecidos, limitando la emisión en bandas de tercio de octava, limitación frecuencial, disponiendo además de registro sonográfico.

Puertas y ventanas

Con el fin de evitar la transmisión de ruido directamente al exterior, en los establecimientos dotados de equipo de música será obligatoria, en toda salida que no sea de emergencia, la instalación fija de doble puerta con cierre automático, constituyendo un vestíbulo de acceso estanco.

Ambas puertas se dotarán de muelles de retención, al objeto de garantizar que sólo una de ellas pueda permanecer abierta en cualquier momento, y preferentemente se situarán en planos perpendiculares.

Las actividades con autorización para disponer de equipo de música deberán asegurar el cierre total de los huecos al exterior. Esta medida será obligatoria también en sociedades gastronómicas y similares que se ubiquen en edificios habitados.

Terrazas y veladores

Los establecimientos con autorización para disponer de equipo de música y que tengan autorizada la instalación de terrazas o veladores, no podrán hacer uso del equipo mientras se encuentren instaladas las mesas y sillas de la terraza, y durante el horario de funcionamiento de la actividad con el equipo de música en funcionamiento deberán mantener la ventana-mostrador cerrada, la cual deberá asegurar el aislamiento acústico mínimo exigido a la actividad.

Maquinaria e instalaciones de actividades

La maquinaria e instalaciones auxiliares y complementarias de las actividades, como pueden ser equipos de climatización, ventilación o refrigeración, puertas metálicas, montacargas, y/o cualquier otro tipo de maquinaria, no podrán transmitir al interior de las viviendas o locales más próximos niveles sonoros y/o vibratorios superiores a los valores de inmisión establecidos en la presente Ordenanza.

Sanciones

- Las infracciones leves, con apercibimiento y multa de entre 100 y 300.
- Las infracciones graves con multa de entre 301 y 1.500 y la consiguiente clausura o cese de la actividad por plazo de hasta seis meses.
- Las infracciones muy graves con clausura de la actividad por periodos desde seis meses y un día hasta dos años.>

Jabier Otermin



al txor bila

Hainbat aldaketa izan ditu Urretxuko gune historikoak, izan ere etxebizitza zaharrak bota dituzte berriak eraikitzeko. Baina eraikuntza-enpresek obra lizentziak eskuratu ahal izateko beharrezkoa dute interbentzio arkeologikoak egitea. Horrelako interbentzioak egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzak dituzte. Lan horietan hainbat enpresa aritu dira eta ARKEOLAN dugu enpresa horietako bat.

ARKEOLANek Iparragirre kaleko 26, 28, 32 eta 34 zenbakietan, Faktorekuan, Jauregi kaleko 12 eta 14 zenbakietan eta Elizaldeko gunean burutu ditu lan horiek eta Arkeolaneko **Marian Gereñuri** egin diogu elkarrikeriketa.

Zer da arkeologia eta zer da ARKEOLAN?


Arkeologia gure iraganera hurbiltzeko erabiltzen dugun baliabide bat da, beste hainbat diziplina-rekin uztartutik joaten dena.

ARKEOLAN ikerketa profesionalak burutzen dituen entitate kultural bat da.

Zein metodo erabiltzen dituzte?

Erabiltzen dugun metodologia Harris Matrix System izenez ezagutzen dena da. Londreseko Museoetan garatutako kontestu sinpleko metodologia hau

egun arkeologo profesionalen gehiengoak erabiltzen duena da. Honez gain, Gipuzkoan aitzindaria den Dendrokronologi labo-



“ Orube batean aurki daitezkeen okupazio maila desberdinak ahalik eta modu zehatzenean aztertzea da gure helburua ”

atzera begira

ategia du ARKEOLANek. Lagungarri suerta daitezkeen beste metodoetara ere jo ohi dugu, hauen artean K14 bidezko datazioa, zundaketa geoteknikoak, makro-aztamen analisiak, zeramika pasten azterketak... dira aipagarri.

Jakin dugunez egurrezko ha-been zatiekin artxibo antzeko zerbait egiten ari zarete. Horrela alda?

Bai, horrela da. Eraikuntza zahar-rak bota edo zaharbertzen direnean aldatua izango den egurren laginak hartzen dira. Ondoren, laborategian, lagin hauek azterketa dendrokronologikoak egiteko erabiltzen dira, hau da, zuhaitzaren hazkundera adierazten duten eraztunen sekuentzia aztertzen da. Helburua eraikinaren eraikuntza data jakin ahal izatea da.

Umetxun aztertu dituzuen tokietan zerbait aurkitu al duzue?

Urretxuri dagokionean, alde zaharrea egindako azterketek XVI, XVII eta XVIII mendeetako egurrezko egiturak ezagutzea ahalbidetu dute.

Bestalde, harresiaren zimendatzea eta fosaren zati bat, Iparragirre kaleko 26-28 zenbakietan, izan dira azterketa hauek agerian jarri dituzten aztarnak.

Nola burutzen dituzue azterketa horiek?

Kasu batzuetan burutzen diren lur mugimenduen kontrol arkeologikoa soilik egiten da, baina beste batzuetan miaketa zuloak egitea beharrezko izaten da, zulo hauek hondeatzeko makina batekin egin ohi direlarik, arkeologoak egokien deritzonean tokietan. Azkenik indusketa arkeologikoa burutzeko aukera dago. Kasu hauetan orube osoa industen da terreno naturalarekin



|| Bertan aurkitzen ditugun aztarnak garai hartan erabiltzen zuten ontziteria, jaten zituzten elikagaiak eta abarren inguruko informazioa ematen digute ||

topo egin arte. Azken aukera hau aztarna arkeologikoei garrantzi berezia hartzen dutenean eta obraren ondorioz kalteak gerta daitezkeenean erabili ohi da.

Nork agintzen du ikerketa egitea? Nork ordaintzen ditu?

Gipuzkoako Foru Aldundia da lan arkeologiko hauen beharraz arduratzen dena eta hauek aurrera eramateko pausuak finkatzen dituena. Hala ere, Eusko Jaurlaritza da aurreko fase batean gune arkeologikoak mugatzen dituena.

Lan arkeologikoak promotore eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean ordaintzen dira, bakoitzak sortutako kostuen erdia jarriz.

Faktorekuari dagokionez, zer esan ahal diguzu?

Lehenengo begiratuan ikusi daiteke oinetxe baten aurrean aurkitzen garela, alfiz batez inguratutako arku eta lehenengo pisuko bal-

atzera begira



Fragmentos de cerámica medieval

1 Muralla de Urretxu

La urretxu antigua

El casco histórico de Urretxu ha sufrido bastantes cambios los últimos años. Viejos edificios dejan lugar a construcciones más modernas. Sin embargo, al tratarse de un casco histórico los promotores para obtener la licencia de obras deben realizar intervenciones arqueológicas, que han desarrollado diversas empresas. Una de las empresas es ARKEOLAN que desarrolló sus trabajos en Iparragirre 26, 28, 32 y 34, en Faktorekua, en Jauregi 12, 14 y en la zona de Elizalde. Hemos hablado con Marian Gereñu quien nos ha concretado que han encontrado restos de muralla y foso en Iparragirre 26-28. También nos ha comentado que por restos de madera obtenidos de las vigas de diferentes edificios pueden situar cronológicamente en los siglos XVI, XVII y XVIII. Sobre Faktorekua, último lugar en el que se han realizado dichas intervenciones, no ha habido mucha suerte, parece ser que las casas de esa calle se agrandaron hacia la muralla que estaría unos 2,5 metros más atrás que la actual fachada de la calle Avenida y debido a diferentes obras ha desaparecido dicha muralla.

koiekin, XVI. mendeko etxe tipikoa.

Egindako zundaketetan ez dira ez harresi ez eta fosaren aztarnarik aurkitu. Gerta daiteke bizilekua handitzen den momentuan murrua desagerrarazi izana. Arku zentral eta balkoiez osatutako hareharri harlanduzko fatxada kontserbatu eta zaharberritua izango da, eraikuntza hau Urretxuko arkitektura erenazentistaren adibide garbia den neurrian.

Etxe hori ikusiz gero, jakin al daiteke nolakoa zen garai hartako Urretxu?

Ez dugu pentsatu behar garai hartako etxe guztiak honen antzerakoak zirenik. Faktorekua oinetxe baten adibidea da, jaun baten etxearena. Egun gertatzen den bezala, garai hartan ere desberdintasun sozialak etxe mota desberdinetan islatuak agertzen ziren.

Avenida aldeko fatxada harresiaren zati al zen?

Erdi Aroko harresiak ez du bat egiten Avenida kaleko etxeen fatxadekin, pixka bat atzerago aurkitzen zen, 2, 5 bat metro. Honek esan nahi du Iparragirre kaleko etxeak harresia gaindituz egin zirela, hasieran zuten tokia baino

gehiago okupatuz. Prozesu honetan murruez gain hau inguratzen zuen fosoa ere okupatua izan zen. Eraikuntza lan hauetan lurra egungo Avenida kalearen mailara iritsi arte zulatu zuten.

Nor da aurkitzen dituzuen aztarnen jabea? Zer egiten duzue aztarna horiekin?

Eusko Jaurlaritzak da jabea. Behin lan arkeologikoak amaituta arkeologoek urte bateko epea daukate aurkitutako aztarnak aztertu ahal izateko. Denbora hau igaro ondoren materialak dagokion arkeologi museora eraman behar dira, baina Gipuzkoako kasuan, museo eza dela eta, baimendutako gordailuan gorde behar dira.

Artikulu amaitezerako orduan izan dugu Iruña-Veleian egindako aurkikuntzen berri. Bertako lanen zuzendari den Eliseo Gilek Jauregi kaleko babes ofizialeko etxeak eraiki zituzten orubean burutu zituen interbentzio arkeologikoak LURMEN enpresarekin. Bai ARKEOLAN bai LURMEN dela eta, esku onetan izan dira Urretxuko lur azpiko altxorrak.>

Idoia Narbaiza

kal eko iritziak



TXEMI VIEDMA

Uztaileko azkeneko egunak Pirineotan igaroko ditugu. Gero, hondartzara, Torreviejjara, eta gure herrira... Denborarekin pentsatzen dugu zer egin behar dugun oporretan. Normalean ez dugu azken uneko erabakirik hartzen.

Cerraré la tienda unos 15 o 20 días y me iré a Donostia. Suelo ir muy a gusto. También me gusta viajar, suelo ir mucho a California, pero este verano a Donostia. Los planes los hago con mucho tiempo siempre, prefiero pensarlo antes.

MARI SOL BENITO



Maitte Quevedo
M.ª Carmen Viedma



ARANTZA ALBISUA

Ba ez dut ezer konkreturik erabakita. Hemen inguruan ibiliko naiz. Herritik kanpo ateratzea gustatzen zait baina oso urrutira joan gabe.

Udako planak, nora zoaz oporretan?

Planes de verano, ¿dónde vas de vacaciones?

Guk garbi dugu nora joango garen, ez dugu pentsatu beharrik. Peñiscolara joango gara aurten ere. Badaramatzagu hamaika urte bertara joaten eta han oso gustura ibiltzen gara denok.

JOSU SUDUPE



MARIBEL SANDIN

De momento no tenemos ningún plan. Solemos pensar a última hora, por el tema del trabajo. Y este año, con el niño... todavía es pequeño... no sé lo que haremos. La verdad es que esto se queda muy vacío, alguna salida habrá que hacer.

Barbara: En verano voy a ir a mi país, a Argentina, a ver a mis amigos.

Iker: ¡Yo aprovecharé el verano para dormir! ¡Durante el curso no me dejan dormir todo lo que quiero!

BARBARA ROBLADO
eta IKER CASADO





Xabierren oroimena bizirik jarraitu dezan

Iragan ekainaren 8an Xabier Ormazabal mendizale urretxuarraren omenez egindako Izarren Hautsa liburua aurkeztu zuten Labeaga Aretuan.

Liburuak helburu garbi bat du: Xabier Ormazabal zenaren oroimena bizirik mantentzea. Liburuak Xabierren bizitzaren lekuko izan nahi duen lana da. Gorka Quevedo kazetaria arduratu da testuez eta Ane Miren Ormazabal liburuaren diseinuaz. Andoni Ormazabal, Xabierren anaia ere buru-belarri aritu da. Baina egitasmoa jende askoren parte hartzari eta laguntzari esker gauzatu dute. Urretxuko Udalarena eta haien lekukotasuna eskaini dieten mendizale, adiskide eta senideena tartean. Liburuaren aurkezpen ekitaldian Elurretako Lehoibarraren bila ikus-entzunezkoa ikusteko aukera ere izan zen. Hau da liburuaren aurkezpen egunean Gorka Quevedok Xabiri idatzitako karta, aurkezpen gisa.

Aupa Xabi! Zer moduz? Gaur ekainaren 8a da, osteguna. Labeaga Aretuan zure omenez idatzi dugun liburua aurkezteko bildu gara. Baduzu pozik egoteko motiborik. Mendian zurekin hamaika une bizitako lagun ugari etorri dira. Hemendik Maroto eta Iñaki ikusten ditut. Pedro eta Erratzu ere ez dira urrutiti. Horrenbeste miresten zenuen Felipe Uriarte ere etorri da. Etxekoak ere hemen daude. Oraindik ez dira errazak horrelako uneak etxekoentzat, baina beraietaz harro egon beharko zenuke. Esther da etortzerik izan ez duen bakarra. Reusen dago, ikasten. Fisioterapiako azterketetan buru-belarri dago. Orain arte oso nota onak ateratu ditu, eta oso gustura dago. Kontra-azaleko testua berak idatzi du, eta oso polita da. Asteburuan Andoni Katalunian egon da bera bisitatzen, eta dagoeneko ikusi du liburua. Asko gustatu zaio!

Liburuari dagokionez, nahiko ondo gelditu dela uste dugu. Egia esan, lan dezente eman digu, baina merezi izan du. Jende askoren laguntza izan dugu. Ikusten da zuk utzitako arrastoa oso sakona dela, eta asko maite zaituztela. Iñaki, Jon, Pedro, Carles eta Elenarekin hamaika ordu pasa ditugu zure espedizioetaz hitz egiten. Montxok eta Berek i rudiak eta argazkiak utzi dizkigute. Diapositiba formatoan ateratu zenituen argazkiak Josu Alzelaik digitalizatu dizkigu. Hurrengo espedizioan kamara digitala eraman, e! Horrela behintzat lan dezente kenduko diguzu! Testuak Ginz-ek erreparatu ditu. Batirtzeri 'diseinu-laguntzaile' lana eman genion. Eta edozein zalantzaren aurrean, lasai ginen: aski zen Ramon Olasagastiri deitzea.


-Aupa Ramon! Zeintzuk izan ziren halako mendia igo zuten lehen Euskal Herritarrak?

-Hau eta hau izan ziren, 1984ko irailaren 28an. Hego aurpegitik igo zuten, 78an suitzar batzuk zabalduko bidetik.


-Mila esker, gazte. Egongo gatzik!

Internet eskura izatea bezala zen! Gainera, gauza bat argi bagenuen honakoa zen. Beti Ramonen kriterioa jarraituko genuela. Adibidez, Poveda "b" edo "v"-rekin idatzi? Batzuk "b"-rekin idazten dute; beste batzuk "v"-rekin. Interneten ere erreferentzia ugari aurkitu daiteke bi modutara. Ramonek esan zigun berak "v"-rekin idaztea hobesten zuela. Ba ez dago ezer gehiago diskutitzeko! "V"-rekin. Ramonek horrela badio...

Liburu egiteko lehen urratsak ez ziren errazak izan. Andonirekin buelta asko eman genion liburua nola egitura-tu jakiteko. Azkenean, atalka egitea erabaki genuen, mendikateka banatuta. Lehenik zure haurtzaroko kapitulua egin genuen. Hortik aurrera, zure



Liburua salgai herriko liburutegietan eta Kultur etxean (12 €)



mendi ibilbidea mendilerroa; Euskal Herriko mendiak, Pirinioak, Alpeak, Peruko eta Argentinako Andeak, Elurretako Lehoinabarra proiektua eta Himalaya.

Inork gutxi dakien sekretutxo bat ere kontatuko dizut. Badakizu Andoni eta teknologia berriak ez direla oso ondo moldatzen... Ba hasieran fax bidez funtzionatzen genuen... Andonik igual zure gaztaroko anekdotaren bat eskuz idatzi eta faxez pasatzen zidan. Gero nik testu hori hartu, orraztu, forma eman eta berriidatzi egiten nuen. Ondoren, testua fax-ez bidali behar izaten nion berriz ere. Andonik testua jaso, irakurri eta zerbait aldatu edo gainera-

tu nahi bazuen, gainean idatzi eta faxez bidaltzen zidan berriz ere... Horrela pasa genituen bai hilabetetxo batzuk...

Gero, liburua aurrera zihoan neurrian, informazioa eta testu kopurua oso handia zenez, posta elektronikoz funtzionatzea beste "erremediorik" ez



genuen izan. Eskerrak! Baina, dena den, okerrena ez da hori izan. Okerrena da hilabete luzez Andoni faxaren abantailatzat kontzeptitzen saiatu izan zela. "Niretzat, ez dago fax-a bezalakorik. Guztia abantailak dira!", esaten zuen behin eta berriro.

Testu eta argazki dezente pilatu genituenean, Ane Mireni komentatu genion proiektuarena, eta ea diseinuaz eta maketazioaz arduratuko zen galde-tu genion. Azkar asko esan zigun baietz. Nik uste ez zekiela oso ondo non sartzen zen. Ez du ez pazientzia makala izan Andoni eta ni aguantatzen! Makina bat egun izan dugu gajoa ordu txikiak arte, Zintzo-Mintzoko lokalean. Kapitulu bat bukatuta zegoela uste zenean, han agertzen ginenean, ea argazki hau aldatu edo testuan aldaketaren bat egiten uzten zigun eskatzeko. Eta, bera, kristoren ogi puska denez, ba ez zigun pega handirik jartzen. Ez dakit nola ez gaituen bidali popatik hartzera!

Egin duen lana izugarria izan da. Makina bat da, gustu aparta du diseinurako. Liburua jasotzen duzunerako badakizu meritua guztia Ane Mirenek duela. Badakit hau esaten dudanean

haserretu egingo dela, eta hau ez nuela zertan esan beharrik aipatuko didala, baina liburua ondo gelditu baldin bada bere lanarengatik izan da.

Barre ederrak ere egin ditugu liburua egiten, zure txikitako anekdotak oroitu. Gogoratzen 10 urte eskasekin itsasbehera baliatuta Saturrarango hondartza nudistara ustekabeen heldu zinenean? Edo Iñakirekin, Telerako Gran Diagonalean, vivac-a egin behar izan zenutenean, erreskateko helikopteroaren zain? Edo Limako ospitalea hotel bihurtu zenutenean? Edo Komunismotik bueltan Bartzelonako aireportuan Polizia Nazionalarekin liskarra izan zenuenekoan, euskal selekzioaren nika eramateagatik? Edo...

Une hunkigarriak ere izan ditugu. Andonirekin batera neguan Pirinioetan igo zenuen lehenengo tontorrean, Hiru Erregeen Mahaian, zenituen ametsak gure egin ditugu. Alpeak ezagutu zenituenean zeinen liluratuta gelditu zinen ere jabetu gara. Elurretako Lehoinabarra izatea lortu zenuen eguneko testuak irakurtzen hunkitu egin gara. Lehen zortzimilakoak egiten zizun ilusioa kontagiatu diguzu...

Eta, zergatik ez aitortu, malkoren bat botatzea ere eragin diguzu. Izan ere, bizitza horrelakoa da. Film batek primeran definitzen du: "Sonrisas y lágrimas".

Bukatzen joan beharko dut. Soilik gauzatxo bat. Eman besarkada bero bat eta muxu bat orain zuren ondoan dituzun Felix, Zulu, Manu, Atxo, Miriam, Antonio, Xabi, Beñat, Iñaki, Cesar, Javier, Aritz eta beste hamaika laguneri. Asko gogoratzen gara beraiekin ere, eta haiek ere liburu bat eta askoz gehiago merezi dute. Baina esan lasai egoteko. Kasu honetan Ramonek egingo die. Duela hilabete batzuk Tere Irastorza beka lortu zuen Mendiminez izeneko proiektuarengatik, eta orain horretan dabil jo eta ke. Albistea ematen diezuenean, ziur naiz lasaitu ederra hartuko dutela. Badakizu Xabi, Ramonek egiten badu, ez dago esan beharrik zeinen liburu ona izango den.

Besarkada bero bat. Aurkezpena eta gero soziedadera goaz afaltzera. Lekua badago. Beraz, nahi baduzu lasai asko etorri. Itxaroten zaitugu. >

Gorka Quevedo
Irudiak: "Izarren hautsa" liburua

En busca del primer ochomil



El sábado 17 de junio partieron Andoni Ormazabal y Oier Plazaola del aeropuerto de Loiu con destino Pakistán. Allí les espera el G-II (8.046 m). Junto con Andoni y Oier, otros montañeros vascos: Pedro García, Mikel Sasiain, Iban Silvar, Juanra Madariaga, Andoni Barandiaran, Koke Lasa y Josu Juan. Montañeros y amigos. No obstante, el ambiente y la relación de los miembros de la expedición es magnífica, lo cual es muy importante a la hora de hacer frente a una montaña como el G-II.

Este año es muy especial para este monte. No en vano, se cumple el 50 aniversario de su primera subida. A la hora de escribir estas líneas, 10 de julio, Andoni, Oier y el resto de montañeros vascos se encuentran en el campo base, y ya tenía montados los dos primeros campamentos de altura.

Hasta ahora la valoración del viaje no puede ser más positiva. El ambiente entre los expedicionarios es muy bueno; el tiempo acompaña y las condiciones de la montaña son óptimas. El trekking de aproximación al campo base fue una experiencia inolvidable. El recorrido es uno de los más bonitos que se puede realizar en el Himalaya. No obstante, hay pocos paisajes tan impactantes como atravesar el glaciar de Baltoro.

Si todo marcha bien, Andoni, Oier y el resto de los expedicionarios harán cima entre el 15 y el 20 de julio. Hasta ahora las cosas marchan bien. Los dos primeros campos de altura ya están montados, y en los próximos días esperan montar el tercero. Luego, las fuerzas de cada uno, el tiempo y las condiciones del monte serán muy importantes, pero está claro que hasta ahora el balance no puede ser más positivo.

Primer ochomil

En caso de conseguir la cima del G-II, sería el primer ochomil tanto para Andoni Ormazabal como para Oier Plazaola. Esta no será la primera experiencia en altura de Andoni y Oier. Forjados en Pirineos y Alpes, los dos últimos veranos los han pasado en los Andes, haciendo monte y escalando. Además, Andoni también estuvo en el verano del 2003 con Xabi en el Tien Shan, escalando el Khan Tengri.

Andoni Ormazabal y Oier Plazaola llevan casi un año preparando la expedición. La preparación física que han llevado ha sido muy intensa, de la mano de Ramón Gárate, médico de la Federación Vasca de Montaña y uno de los mejores especialistas de medicina de montaña de Euskal Herria. Si todo va bien, Oier y Andoni deberían regresar a casa el 17 de agosto. Esperemos que lo hagan con su primer ochomil en la mochila.



Oier Plazaola eta Andoni Ormazabal urretxuarak



Euskalbar:
7 hiztegi klik
bakar batean

Sarea arakatzeko Firefox erabiltzen dutenek 7 euskal hiztegitan (Euskalterm, 3000 Hiztegia, Elhuyar, Hiztegi Batua, Itzul (Euskal Itzultzaileen zerrendetan bilaketak egiteko), Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa eta Justo Mokoroaren hiztegia) bilaketak **aldi berean** egiteko aukera daukate.

Nahikoa da aurkitu nahi dugun hitza behin idaztea, ondoren, klik bana eginez, zazpi hiztegiatan aurkitu ahal izateko.

Nola instalatu

- 1.- **Firefox euskaraz instalatuta badaukazu:** sartu orri honetan eta bertan ematen diren pausuak jarraitu http://www.erabili.com/zer_berriberriak/1148288618
- 2.- **Firefox euskaraz instalatu ez badaukazu:** lehenik eta behin helbide honetatik firefox deskargatu eta instalatu <http://www.librezale.org/mozillafirefox/>. Behin Firefox euskaraz instalatuta, sartu orri honetan eta bertan ematen diren pausuak jarraitu http://www.erabili.com/zer_berriberriak/1148288618.

Jexux Mari Alberdi





Leire

oso pertsonal a

Izen-abizenak:
Leire
Santillán Luzuriaga

Jaiotze data:
1974ko urriaren 14a

Ofizioa:
diseinatzailea,
jostuna

Afizioa:
dantza egitea

Hari, oihal eta marrazki artean dihardu Leirek, tartean ere sormen lanetan, bere kolekzioen inspirazioa topatuz. Jostun lanbideari buruzko puntadak ematen dizkigu ondorengo lerroetan.

**“Egokiena eta politena
pertsona bakoitzak moda
bere estilora egokitzea da”**

santil lan

Ze lanetan zaude murgilduta?

Momentu honetan datorren udaberi-udarako kolekzioa eta azaroan Kursaal-en egingo den ezkontza ferirako soinekoak prestatzen ari naiz. Bestalde, dendan saltzen ditugun neurrira egindako jantziek, jaunartze eta ezkontzetarako bereziki, lana ematen dute ere. Horrez gain, ezkontzetako soinekoen marrazkiak prestatzen ari naiz.

Desfilem batean aurkezten dituzu zure jantziak?

